



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA  
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C  
Tel: 948 76 43 75  
junta@aezkoa.net  
valledeaezkoa@gmail.com  
www.aezkoa.org

Ariben, 2026ko otsailaren 13an, goizeko bederatziak eta hogeita hamarrean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

## **BILDUTAKOAK**

**Batzarreburu jauna:** Karlos Bueno Reka

**Batzarrekide jaun/anderak:** Barberena Echart, Beñat - Gómez Sanz, Iraide – Merino Iriarte, Juan Esteban – Ubau Galarza, Nere.

## **LEHENA.- AURREKO BILKURAKO AKTA ONESTEA**

Onetsi da 2026ko urtarrilaren 15eko bilkurako akta, eragozpenik agertu ez baita.

## **BIGARRENA.- 2026KO AURREKONTUA, PLANTILLA ORGANIKOA ETA ZERGA TASAK**

### **1- 2026KO AURREKONTUA.**

Aurkeztu da 2026. urteko aurrekontuaren zirriborroaren azken bertsioa eta egindako aurreko bileran adostutako aldaketak berrikusi dira.

Era berean, berrikusi dira aurrekontua gauzatzeko oinarriak, eta haiekin ados daude.

Osoko Bilkurak aho batez eta gehiengo osoz onetsi ditu 2026. urteko aurrekontu proiektua eta haren egikaritze oinarriak, akta honi eranskin gisa atxiki zaizkionak, eta erabaki du, baldin eta aetzen batzarreak onartzen badu, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 275. artikuluan eta hurrengoetan araututakoa betez, jendaurrean jarriko dela hamabost egun balioduneko epean, aldeztuz aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Batzarre Nagusi honetako iragarki-oholean eta web-orrian iragarkia jarrita, herritarrek eta interesdunek espedientea idazkaritzan aztertu eta egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten.

Jendaurrean jartzeko epean alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, 2026rako aurrekontu orokor bakarra behin betiko onetsizat joko da, eta laburpena argitaratzeko izapidea beteko da. Aurrekontu hau osatzen duten gastuak eta diru-sarrerak, kapituluaren arabera, honako hauek dira:

### GASTUAK:

1. Kapituluak – Langile GASTUAK:	387.000,00 euro
2. Kapituluak – Ondare eta zerbitzuen GASTUAK:	234.500,00 euro.
3. Kapituluak – Transferentzia arruntak:	62.400,00 euro.
6. Kapituluak – Inbertsio errealak:	434.000,00 euro.
<b>GUZTIRA GASTUAK:</b>	<b>1.117.900,00 euro.</b>

### DIRU-SARRERAK

3. Kapituluak – Tasak, prezio publikoak eta beste batzuk:	114.800,00 euro.
4. Kapituluak – Transferentzia arruntak:	240.500,00 euro.

5. Kapituluak – Ondare eta komunalen aprobetxamendua: 432.300,00 euro.  
 7. Kapituluak – Kapital transferentziak: 170.300,00 euro.  
 9. Kapituluak – Finantza pasiboak: 160.000,00 euro.  
**Diru-sarrerak, GUZTIRA: 1.117.900,00 euro.**

Era berean, aurrekontuari gehituko zaio Irabiako pista eta Arrazola aldea hobetzeko azken lanei dagokien partida, obren azken ziurtagiria ordaintzeko, PSTD-PRTR funtsetatik datorren diruzaintzako gerakinaren kargura.

Batzarrea otsailaren 27an egingen da, eta gai-zerrendan 2025. urteko kontuen behin-behineko informazioa ere jasoko da, oraindik itxi gabe baitaude.

## 2- 2026ko plantilla organikoa.

Aztertutik plantilla organikoa, lanpostuen eta langileen banakapena, Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi du:

PUESTO	Nivel	Acceso	Número	Complementos			Jornada	Perfil Euskera	Situación
				Puesto	Nivel	Prolong. jornada			
<b>RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO</b>									
Secretaría	A	CO	1	39,72%			100%	C1	Vacante
Auxiliar administrativa	D	CO	1	10,99%	12%		100%	C1	Vacante
Técnica Servicio Euskera (Compartido)	C	CO	1	20,00%		10%	100%	C2	Activo
Personal limpieza	E	CO	1	8,21%	15%		41,37%	B1	Vacante
Guarderío e información Irati	D	CO	1	8,70%	12%		Discontinuo	B2	Activo
Guarderío e información de Irati	D	CO	2	8,70%	12%		Discontinuo	B2	Activo
Guarderío e información de Irati	D	CO	3	8,70%	12%		Discontinuo	B2	Activo
Guarderío e información de Irati	D	CO	4	8,70%	12%		Discontinuo	B2	Activo
Guarderío e información de Irati	D	CO	5	8,70%	12%		Discontinuo	B2	Activo
<b>RELACIÓN NOMINAL DE PERSONAS</b>									
<b>PERSONAL LABORAL FIJO</b>									
APellidos y Nombre	Nivel	Antigüedad	Compl. Puesto	Compl. Nivel	Compl. prolong	Trienios	PUESTO	Situación	
Zabaltza Garate, Idoia	B	15/12/1989	20%		10%	12	Técnica Servicio Euskera.	Activo	
Garaialde Etxeberz, Elena	D	08/04/2010	8,70%	12%		5	Informadora Irati	Activo	
Ubau Galarza, Imanol	D	12/08/2016	8,70%	12%		3	Informador Irati	Activo	
Agorreta Bernal, Iñigo	D	24/02/2020	8,70%	12%		2	Informador Irati	Activo	
Argote González, Naiara	D	01/10/2023	8,70%	12%		1	Informadora Irati	Activo	
Ubau Galarza, Nere	D	28/12/2023	8,70%	12%			Informadora Irati	Excedencia	
<b>PERSONAL INTERINO-CONTRATO ADMINISTRATIVO</b>									
APellidos y Nombre	Nivel	GRADO	Antigüedad	Puesto	Nivel	PUESTO			
Urtasun Fuertes, Esther	A	5	02/04/1991	39,72%		Secretaria			
Juanicorena Santesteban, Maider	D		18/07/2022	10,99%	12%	Aux. Administrativa			
Moreno Ramos, Irene	E		13/06/2024	8,21%	15%	limpieza			

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoaren arabera, onetsitako plantilla Idazkaritzan egonen da ikusgai 15 egun baliaduneko epean, iragarki hau

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, auzotarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten.

Era berean, plantilla organikoa ikusita, Osoko Bilkurak 2026ko lan eskaintza publikoa onartu du, honako lanpostu hau betetzeko:

Plaza kopurua: 1. Lan-izaera finkoa. Lanpostua: Garbitzailea.

Jardunaldia: E mailaren % 41,37. Lanpostu osagarria: % 8,21.

Maila osagarria: % 15. Sartzeko sistema: lehiaketa oposizioa. Hornidura aurreikuspena: zehaztu gabe. Txanda irekia.

Plantilla organikoaren eta lan eskaintza publikoaren hasierako onespena arlo horretan indarrean dagoen araudia betez argitaratuko da.

### **3- 2026ko zerga tipoak.**

Batzarre Nagusiak aplikatzen dituen zerga tasak berrikusi ondoren (2024tik aldatu gabe daude), eta sektore turistikorekin Kultur Olako erakusketa eta bisitetara sartzegatik kobratzen den zenbatekoa murrizteko aukera joratu denez, Osoko Bilkurak honako zerga-tasa hauek onartu ditu 2026rako, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera aplikatzekoak izanen direnak:

Prezio publikoa Aezkoako Kultur Ola eraikineko (Orbaizetako Munizioen Errege Fabrikaren Jauregia) erakusketa eta bisita gidatuetara sartzegatik, honela banatuta:

1.- Kultur Ola eraikina:

- Kultur Olako sarrera orokorra: 4,00 euro.
- Sarrera hobaridunak:
  - 10 urtetik beherakoak: doan.
  - Eskoletako taldeak –pertsoneko– 1,00 euro.
  - Taldeak –gutxienez 15 pertsona–: 2,00 euro.

2.-Bisitaldi gidatuak, Munizio Fabrikako multzora:

- Sarrera orokorra: 6,00 euro.
- Sarrera hobaridunak:
  - 10 urtetik beherakoak: doan.
  - Eskoletako taldeak –pertsoneko– :1,00 euro.
  - Taldeak –gutxienez 15 pertsona–:4,00 euro.

3.-Sarrera orokor bateratua: Kultur Ola eraikina + bisitaldi gidatua: 6,00 euro.

4- Gainera, honako hobari hauek onartu dira ibarrean ostatu hartuta dauden edo ibarreko edozein establezimendu edo zerbitzutan 15 eurotik gorako kontsumoa egiten duten pertsonentzat (aldez aurretik dagokion deskontu-tiketeta aurkeztu beharko da):

- Kultur Olarako sarrera orokorra: 3,00 €
- Munizio fabrikarako bisitaldi gidatua: 5,00 euro.
- Sarrera bateratua (Kultur Ola + bisitaldi gidatua): 7,00 euro.

Indarrean jarraitzen dute orain arte ezarritako gainerako prezioak.

**HIRUGARRENA.- LAGUNTZEN DEIALDIA: TRANTSIZIO ENERGETIKOA, ABELTZAINZAKO TOKIKO AZPIEGITURAK 2027, MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA, % 2 KULTURALA.**

#### - Kulturarako %2

Azken egunotan hainbat dirulaguntza deialdi atera dira. Lehenik eta behin, Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioak deitutako Kulturaren %2ko laguntzei buruzko informazioa eman da, aurreko saioan aztertu baitzen. Arkitektoarekin hitz egin zen, zeinak bere garaian turismo erabilerarako ondare historikoa birgaitzeko laguntza batzuetara aurkeztu zen memoria idatzi baitzuen, eta jakinarazi zigun ezinezkoa zitzaiola deialdi berri horri dagozkion memoria eta aurrekontua prestatzea, kontua ez baitzen aurreko aurrekontua egokitzea soilik. Egin beharreko esku-hartzeen konplexutasuna eta alde zurretik Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuaren oniritzia behar denez, deialdi honetarako eskaera aurkeztu gabe utzi behar izan da, eta argi geratu da – aldizkako laguntzak direnez – espedientea prest izan behar dela hurrengo deialdirako behar besteko aurrerapenarekin. Horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuarekin bilera bat izatea, labeak birgaitzeko egin dituzten jardueren antzekorik aurreikusita duten eta proiektuan sar daitezkeen eta baimendu daitezkeen zer jarduketa aurreikusten dituzten jakiteko. Era berean, beharrezkoa da jakitea Nafarroako Gobernuak finantzaketa osagarria jaso dezakeen ala ez, kulturaren % 2ko dirulaguntzak guztira proiektuaren kostuaren % 75 baino ez baitu estaltzen, eta Batzarre Nagusiak berak finantzatu beharreko zenbateko handia edukiko luke. Behin datu horiek edukita, proiektua behar besteko aurrerapenarekin prestatzeaz arduratuko den talde batekin jarri beharko da harremanetan. Batzarre Nagusiak prozesu hori hurrengo laguntza-deialdiaren aurretik jarraitzea onartu du.

#### - Abeltzaintza azpiegiturak.

Era berean, tokiko abeltzaintza azpiegiturak hobetzeko 2027. urtean gauzatuko diren dirulaguntzen deialdia argitaratu dela adierazi da. Osoko Bilkurak eskaera bat aurkeztea erabaki du, teknikariarekin eta abeltzainen ordezkariarekin eginen diren jarduketetarako. Eskaera aurkezteko epea martxoaren 16an amaituko da.

#### - Trantsizio energetikorako toki-erakundeentzako laguntzak -2026.

Era berean, trantsizio energetikorako laguntzen deialdi bat argitaratu da, 2026an eginen dena. Deialdi horretan, 2. neurrian (energia berriztagarrien instalazioetako inbertsioak) aurreikusitako jarduerak daude. Kontsulta bat egin da, eta posiblea da Kultur Olarako galdara berria erosteko laguntza eskaria aurkeztea, nahiz eta biak (dagoena eta jarriko litzatekeena) energia berriztagarrikoak izan. Jarduketaren aurrekontu zenbatetsia berrogei mila eurokoa da, baina erabat definitu gabe dago, eta dirulaguntza onartutako aurrekontuaren % 50ekoa da. Osoko Bilkurak erabaki du Kultur Ola eraikineko galdara ordeztzeko eskaera aurkeztea, izan ere azken hiru urteetan zehar arazo ugari eman ditu. Berria egur-galdara izanen litzateke.

#### - Tokiko erakundeentzako eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako laguntzak, mugaz gaindiko lankidetzak-proiektuetarako.

Deialdiaren oinarriak azaldu dira, onartutako aurrekontuaren % 100eko dirulaguntzak ematen dira, baina proiektu bakoitzeko gehienez bost mila euro. Aurkezteko epea 2026ko martxoaren 10ean amaituko da. Garaziko bailararekin lankidetzak proiektuen bat aurkezteko aukera aztertzea erabaki da.

- Lan eta bizi dirulaguntzak.

Laguntza horiek aurreko urteetan arautzen zituzten oinarrietako aldaketa bat onartu da, eta, halaber, otsailaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da Pirinioetako Planeko lurralde-eremuan inskribatutako toki entitateentzako dirulaguntzen deialdia, etxebizitza eta enplegua lotzen dituzten eta eskualdeko biztanleria eta lurralde garapena finkatzen dituzten inbertsioetarako. Batzarreburuak gogorarazi du bere garaian memoria balioetsi bat egin zela garai batean Aezkoako Etxea izan zenekoan etxebizitzarako eskuhartze posible bat egiteko; bere ustez, ziurrenik ez da nahikoa izanen laguntza-eskaera aurkezteko, baina aztertu egingen da. Osoko Bilkura ados dago.

## **LAUGARRENA.- HITZARMENA RURAL KUTXAREKIN: OIHAN JARDUEREN FINANTZAZIOA.**

Hainbat bileratan azaldu den bezala, Batzarre Nagusi hau harremanetan jarri zen, baso-lanen proiektua egiten duten teknikarien bitartez, Nafarroako Rural Kutxako (ASCRN) Gizarte Ekintzako ordezkari batzuekin, erakunde horrek hainbat obratarako ematen dituen laguntzak jaso ditzaketen basogintzako eta abeltzaintzako azpiegituretako lanak aurkeztu ahal izateko; besteak beste, basogintzako eta ingurunea hobetzeko lanak, Batzarre Nagusiak egiten dituenak.

Nafarroako Rural Kutxako Gizarte Ekintzak, bere helburuen artean, ongintza-, gizarte-, hezkuntza-, kirol-, kultura-, zientzia- eta ingurumen-lanak egitea aurreikusten du, eraldatzeko bokazioarekin, gizartearen beharrezan erantzuteko. Batzarre Nagusiak baso-lanak (ATF) eta/edo abeltzaintzako azpiegiturek (AIG) egiteko laguntzen deialdiaren barruan hainbat baso-lan egin ditu. Honako ezaugarri hauek dituzte:

JARDUERA	KRONOGRAMA	AZALERA/UNITATEAK	AURREKONTUA			
			AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA	GEHIENEO DIRULAG (Gizarte Ekintzal)	
			KONTRATAREN EXEKUZIOA	NAFARROAKO GOBERNUA (sobre PEC)	€ (1)	% (2)
Koniferoen landatzea	2025eko udaberria	9,75 ha	26.141,80 €	12.986,74 €	13.155,06 €	50,32 %
Udako garbiketak	2025eko uda	14,39 ha	12.917,86 €	7.750,72 €	5.167,14 €	40,00 %
Abeltzaintzako belar-sastrakak kentzea	2025eko uda	29,74 ha	20.576,11 €	16.460,89 €	4.115,22 €	20,00 %
Lurra lantzea, larreak ereitea eta itxiturak kentzea	2025eko uda	6,79 ha	19.364,49 €	-	9.682,25 €	50,00 %
Aska	2025eko uda	2,00 ud	9.844,97 €	1.968,99 €	4.922,49 €	50,00 %
			<b>88.845,23 €</b>	<b>39.167,34 €</b>	<b>37.042,15 €</b>	

Hitzarmenean jasotako lan bakoitzerako ASCRNk aintzat hartu duen finantzaketaren zenbatekoa adierazi da, gainerako finantzaketaren eta bere aurreikuspenen arabera.

Hitzarmenaren xedea da ASCRNren eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren arteko lankidetzaren esparrua ezartzea, proiektua garatzen laguntzeko, "Ingurumena eta tokiko garapena" hobetzen laguntzen duen jarduera delako, eta ASCRNren Hezkuntza eta Sustapen Funtsak aurreikusitako helburuekin bat datorrelako. Batzarre Nagusiaren konpromisoa da ASCRNren laguntza ekonomikoaren zenbateko osoa adierazitako jarduketak gauzatzeko

erabiltzea, eta, horrela, haren ingurumen- eta gizarte-helburuak betetzen laguntzea.

Era berean, Batzarre Nagusiak hitzarmen honen xede diren jarduerak burutzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak jarriko ditu, eta proiektuaren arduradun bakarra izanen da, eta ASCRN jare utziko du jarduera horretatik erator daitekeen edozein erantzukizunetik. Era berean, beharrezko aseguru, baimen eta baimen guztiak edukitzeko konpromisoa hartzen du, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aipatutako helburuak betetzeko, ASCRNk hogeita hamazazpi mila eta berrogeita bi euro eta hamabost zentimoko (37.042,15 €) gehieneko ekarpena egingen du Aezkoako Batzarre Nagusiaren alde.

Osoko Bilkurak, hitzarmen-proposamena ikusita, haren testu osoa onartzea erabaki du, eta presidenteari ahalmena eman dio hitzarmena eta hura betetzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

### **BOSGARRENA.- ASISTENCIAL IBAÑETA, AKZIOEN BANAKETAREN ONESPENA.**

Presidenteak jakinarazi duenez, Asistencial Ibañetak Erroko egoitzaren kudeaketa uzteko komunikazioa egin ondoren, inguruko toki entitate guztien artean, enpresarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lanean aritu dira, zentro horren jarraipenerako aukera bideragarri bat bilatzeko. Beste bilera batzuetan hitz egin den bezala, erabakigarria izan da "Asistencial Ibañeta" sozietatea osatzen duten toki entitate guztiek Planiger SA akziodun nagusiari (lehen Amma Navarra SL zen) dagozkion akzio guztiak erosteko negoziatioa. Hori da egoitza ez ixteko eta sozietatea osatzen duten administrazioek egoitza kudeatzen ez jarraitzeko modua.

Une honetan, Sozietatearen kapital soziala 203.093,00 eurokoa da, bakoitza 1,45 euroko balio nominaleko 140.064 akziok ordezkaturata, guztiak mota berekoak, erabat harpidetuta eta ordainduta, honako banaketa honekin:

Planiger, S.A.	129.980,00 €	64,00%
Esteribarko Udala	20.167,00 €	9,93%
Aezkoako Batzarre Nagusia	16.166,00 €	7,96%
Erroibarko Udala	13.262,00 €	6,53%
Luzaideko Udala	7.393,00 €	3,64%
Aurizko Udala	5.930,00 €	2,92%
Artzibarko Udala	5.443,00 €	2,68%
Orotz Beteluko Udala	3.493,00 €	1,72%
Orreagako Udala	1.259,00 €	0,62%

Prozesua gauzatzeko, eta egoitza sozietateak kudeatzera iristeko, dagoeneko zonako toki-erakunde guztien partaidetzarekin, honako jarduketa hauek egingen direla erabaki da:

1.- Planiger sozietateak Ibañeta Asistentziaren aurka duen zorra barkatzea, oso-osorik.

2.- Toki-erakundeek sozietate bereko akzio izendun guztiak salerostea Planigerri, jada hitzartutako 1 euroko prezio sinbolikoan.

Akzioak modu honetan erosiko dira:

- Esteribarko Udalak %18,54a hatuko du.
- Aezkoako Batzarre Nagusiak, %14,86a.
- Erroibarko Udalak, % 8,72a.
- Luzaideko Udalak, %10,44a.
- Aurizko Udalak, %5,45a.
- Artzibarko Udalak, %5a.
- Orreagako Udalak, % 1,16a.
- Orotz-Beteluko Udalak ez du akziorik hartuko, baina orain dituenak mantenduko ditu.

3.- Maniobra-funtsa Sozietatean geratzen diren erakunde akziodunen eskura geratuko da oso-osorik.

4.- Egoitzan okupazio handia bermatzeko lan egitea, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

5.- Adierazitako prozesua egin ondoren, egoitzaren egungo kudeatzaileak kudeaketa hori egiten jarraituko du hilabete batzuetan, zerbitzuak ordaindu ondoren, trantsizioa modurik egokienean egiteko.

Batzordearen osoko bilkurak erabaki du azaldutako prozesu guztia onartzea eta akzioak erostea, aurkeztutako proposamenaren arabera.

#### **SEIGARRENA.- KULTUR OLAKO – IRATIKO LANGILEAK KONTRATATZEKO DEIALDIA (TURISMO INFORMATZAILEAK).**

Jakinarazi da kanpaina turistikoa martxoko San Jose zubirako martxan jartzeko asmoa dagoela (Kultur Ola irekiko da). Era berean, informatu da Kultur Olan, eta, hala badagokio, Arrazolan ere, zerbitzua emanen duten langileak kontratatu behar direla. Aurreko urtean egindako deialdiaren ereduak aurkeztu da. Osoko Bilkurak uste du oraingoz ez dela beharrezkoa hautaketa bat egitea Arrazolan laguntza edo ordezkapenak egiteko. Beraz, Kultur Olan koordinatzaile gisa egonen den pertsonaren lanpostua Agoizko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan aurkeztuko den lan-eskaintza baten bidez bakarrik kudeatuko da. Enplegu eskaintza hori Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari gerentearen martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenean araututako laguntzen barruan sartzen da, interes orokorreko edo sozialeko obra/zerbitzuetarako langabetuak kontratatzekean.

Kontratazioa martxoaren 16an hasiko da, 2026ko abenduaren 15era arte, eta guztira 9 hilabeteko iraupena izanen du.

Lanposturako izangaien honako hauek bildu beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

- Enplegu-eskatzaille gisa agertzea.
- Gutxienez eskola-graduatu izatea.
- C-1 mailaren baliokidea den euskara-ezagutza justifikatzea.

Deialdiaren baremoa eta oinarriak onartu dira, eta epaimahai kalifikatzailea izendatu da. Horiek akta honi erantsen zaizkio eranskin gisa, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio, zabal ditzan. Erakunde horrek aurrehautatutako pertsonen zerrenda bidaliko dio Batzarre Nagusiar, eta horien artean egin beharko da behin betiko hautaketa. Kontratututako pertsonaren kolektiboaren arabera izanen da dirulaguntza.

Gaiarekin jarraituz, presidente jaunak esan du ibarreko turismo sektorearekin egindako bileran bereziki Aezkoako eta eskualde osoko establezimenduetara bisita gidatuak egiteko beharra nabarmendu zela, bezeroen artean zabaldu ahal izateko. Orreaga, Irunberri eta Otsagabiako turismo bulegoetara ere bisita eskaintza hori zabaltzea erabaki da.

#### **ZAZPIGARRENA.- LANGABEEN KONTRATAZIOA (BASO LANGILEAK).**

Aurreko deialdian bezala, urtero dirulaguntza eskatuko zaio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, bi baso peoi kontratatzeke. Baso-lanak eta ingurumena egiteko bi peoi kontratatzea planteatu da, sei hilabeterako. Gaia eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak erabaki du bi pertsona kontratatzea, 6 hilabetez, 2026an baso eta ingurumen lanak egiteko. Izapideak Agoizko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrean eginen dira, interes orokorreko/sozialeko kontratuatarako, Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari gerentearen martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenean araututako dirulaguntzen arabera, interes orokorreko edo sozialeko obretarako/zerbitzuetarako langabetuak kontratatzeke.

Kontratazioak apirilaren 8tik urriaren 7ra bitarteko iraupena izanen dute.

Halaber, deialdiaren oinarriak onartu dira, eta akta honi eranskin gisa gehitu zaizkio, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzura bidaliko dira, zabal ditzan. Prozesua aurreko kasuan bezala izanen da. Agoizko EZNtik, ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona aurrehautatuen zerrenda bidaliko dute, eta epe bat irekiko da Batzarre Nagusiko bulegoetan egiaztatzeke, eta, ondoren, hautaketa eginen da.

Ubau batzarrekide andereak bilkura utzi du.

#### **ZORTZIGARRENA.- BASO LANEN KONTRATAZIOA 2026.**

2024-2025 Basogintzako Jarduera eta Lanen Proiektua idatzi duen Ingeniaritzak proiektua onartutako dirulaguntzara egokitu du.

EFPLren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, loteak diseinatu dira, separaten bidez, horietako bakoitza osatzen duten prestazioak barne, eta modu independentean kontrata daitezke, zeregin mota bakoitza gauzatzea zaildu gabe. Baso-lanen proiektuan honako lote hauek sartzen dira:

Obra-kontratuaren balio zenbatetsia laurogeita bat mila ehun eta berrogeita hamabi euro eta hamar zentimokoa da. (81.152,10 €) BEZik gabe, eta lau lotetan banatuta dago, honako zenbateko hauekin:

- 1. lotea (bakandua, eta hazteko oinen seinaleztapena): pinturaz seinaleztatuko dira aurrez hautatutako hazteko oinenak (gehienez 200 oin hektareako). Lotearen balioa bost mila hirurehun eta hirurogeita sei euro eta laurogeita hemeretzi zentimokoa da (5.366,99 €), BEZik gabe.

- 2. lotea (basoberritzeak mantentzea): Landaredi lehiakidearen garbiketa orokorra, bakandu selektiboa eta oinak moztea. Lotearen balioa berrogeita zazpi mila ehun eta hogeita hamasei euro eta hogeita sei zentimokoa da (47.136,26 €), BEZik gabe.

- 3. lotea (belar-sastrakak garbitzea): sastrakak kentzea eta zuhaixka-landaredia mekanizatzea. Lote honen balioa hogeita bi mila eta berrogeita

hamazazpi euro eta hogeita hamazazpi zentimokoa da (22.057,37 €), BEZik gabe.

- 4. lotea (itxiturak kentzea): Egiteko zailtasun ertaina duten itxiturak kentzea, sastrakak eskuz kendu ondoren eta itxitura zaharreko elorri ilarak abiaraztea, baimendutako zabortegira eramatea barne. Lote honen balioa sei mila bostehun eta laurogeita hamaika euro eta berrogeita zortzi zentimokoa da. (6.541,48 €), BEZik gabe.

Halaber, artikulua horretan aurreikusten da, lotetan zatitzen denean, lote edo prestazio bereizi bakoitzaren esleipenean aplikatu beharreko prozedura eta publizitate arauak multzoaren balio metatuaren arabera zehaztuko direla, eta, beraz, kontratazio prozedura aukeratzeko, EFPLren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera esleitu ahal izanen dela, prozedura sinplifikatuaren bidez. 200.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuetan bakarrik egin ahal izanen da. Adierazitako lote guztietarako kontratuaren gehieneko prezioa 81.152,10 €koa da.

Gonbidapena eginen zaie inguruko enpresa eta profesional guztiei, eta, garbiketa lanen kasuan, etorkizuneko oin-seinaleekin, inguruan lan egiten duten ingeniariari eta profesionalari, proiektua idatzi duena eta dagokion obra zuzendaritza eginen duena kontuan hartu gabe.

Aurreko dokumentuak eta txostena ikusita, Osoko Bilkurak onartu du 2025-2026 ATFren proiektuari dagozkion lanak prozedura sinplifikatu bidez kontratatzea, berrikusi eta onartzen den baldintza agiriarekin eta adierazitako baso jarduera eta lanen proiektuan jasotzen diren baldintza teknikoekin bat etorritik.

#### **BEDERATZIGARRENA.- ABELTZAINZA AZPIEGITUREN KONTRATAZIOA 2026.**

Aurreko kasuan bezala, Aezkoako mendian egin beharreko abeltzaintza-azpiegituren proiektua idatzi duen taldeak aurkeztu ditu proiektuan jasotako lanak, loteka antolatuta, separaten bidez, EFPLren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, horietako bakoitza osatzen duten eta zeregin mota bakoitza gauzatzeko oztopatu gabe modu independentean kontrata daitezkeen prestazioak barne.

Obra-kontratuaren balio zenbatetsia laurogei mila zortziehun eta laurogeita sei euro eta hirurogei zentimokoa da (80.886,60 €), BEZik gabe, eta hiru lotetan banatuta, honako zenbateko hauekin:

- 1. lotea: itxierak: hamahiru mila bostehun eta laurogeita sei euro eta laurogeita hiru zentimo, BEZik gabe. (13.586,83 €).

- 2. lotea: Ur-putzua – Sariozar: berrogeita hiru mila bostehun eta hogeita hamalau euro eta hirurogeita hamasei zentimo, BEZik gabe. (43.534,76 €).

- 3. lotea - Bideak hobetzea: Aria-Nabalako pista: hogeita hiru mila zazpiehun eta hirurogeita bost euro eta zentimo bat BEZik gabe. (23.765,01 €)

Halaber, artikulua horretan aurreikusi da, lotetan zatitzen denean, lote edo prestazio bereizi bakoitzaren esleipenean aplikatu beharreko prozedura-eta publizitate-arauak multzoaren balio metatuaren arabera zehaztuko direla, eta, beraz, kontratazio-prozedura aukeratzeko, EFPLren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera esleitu ahal izanen dela, prozedura sinplifikatuaren bidez. 200.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuetan

bakarrik egin ahal izanen da. Adierazitako lote guztietarako kontratuaren gehieneko prezioa 80.886,60 €koa da.

Aurreko agiriak eta txostena ikusita, Osoko Bilkurak onetsi egin du 2026an Aezkoa mendian egin beharreko Abeltzaintza Azpiegituren Proiektuari dagozkion lanak prozedura sinplifikatu bidez kontratatzea, inguruko enpresa eta profesional guztiei gonbidapena eginez, berrikusi eta onartzen den baldintza-agiriarekin eta aipatutako proiektuan jasotzen diren baldintza teknikoekin bat etorritik.

Ubau batzarrekide anderea sartu da bilerara.

### **HAMARGARRENA.- MARTXOAK 8-ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Berdintasun Zerbitzuak Batzarre Nagusi honi aurkeztu dio Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta adierazpen instituzional bat onartzeko proposamena. Proposamena irakurri eta aho batez onartu dute bertaratutakoek. Adierazpenak honakoa hau dio, hitzez hitz:

“Feminismoari esker... Gaur izan, egon, esan eta erabaki dezakegu”

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Nafarroako Toki eta Lurralde Entitateek ezinbesteko errealitate bat gogorarazi nahi dugu: gaur egun barneratuta ditugun eta gure eguneroko bizitzaren parte diren eskubide eta askatasun asko mugimendu feministaren borrokei eta historian zehar emakumeen antolamendu kolektiboari esker lortu dira. Diskurtso antifeministen edo erredukzionisten bidez feminismoa zalantzan jartzen edo deslegitimatzen den testuinguru sozial batean, haren eginkizun erabakigarria aldarrikatu behar da garapen sozialean, eskubideen hedapenean eta sistema demokratikoaren indartzean. Feminismoa ez da eguneroko bizitzatik kanpo geratzen, ezta ideologia iragankor batetik kanpo ere: indar historiko bat da, pertsona guztien bizitza eraldatu duena, gizon zein emakume, eta bizi garen oraina ahalbidetu duena. Azken mendean zehar, eta ez erresistentziarik gabe, feminismoak funtsezko mugarrak bultzatu ditu, egun zalantzan jartzen ez direnak. Borroka horiei esker, emakumeek boto eskubidea eta parte-hartze politikorako eskubidea lortu zuten; berdintasunean hezteko eskubidea; lan ordaindua, norberaren dirua kudeatzeko eskubidea eta autonomia ekonomikoa; mugitzeko askatasuna; dibortzioa; eta norberaren gorputzari buruz erabakitzeko eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak barne. Era berean, feminismoa funtsezkoa izan da zainketen banaketaren balio soziala eta ekonomikoa ikusarazteko eta aldarrikatzeko, horiek gabe ezin baita bizitza sostengatu. Aurrerapen horietako bakoitza ez zen ezerezetik heldu, ez ziren egun batetik besterako prozesuak izan. 300 urteko oinarri teorikoaren, hausnarketa kritikoaren, mobilizazioaren eta emakume belaunaldien iraunkortasunaren emaitza dira. Hala ere, borroka horiek deslegitimatzen, minimizatzen edo ukatzen dituzten diskurtsoak ugaritzen ari dira gaur egun, berdintasuna lortuta dagoela esanez edo feminismoa mehatxu gisa aurkeztuz. Diskurtso horiek, historiari ezikusiarrena egiteaz gain, arriskuan jartzen dituzte konkistatutako eskubideak, eta zaildu egiten dute berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egitea. Horren aurrean, berresten dugu feminismoa justizia sozialerako aldaketaren motorra izan dela eta izaten jarraitzen duela, eta horrek eskubideak ugaritu dituela, ez bakarrik emakumeentzat, baita jendarte osoarentzat ere. Haren balio historikoa eta egungo indarraldia aipatzea erantzukizun instituzional eta demokratikoa da.

Honengatik guztirengatik, adierazpen hau sinatu dugun toki eta lurralde erakundeek konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak bultzatzea, feminismoaren lorpen historikoei eta horrek eguneroko bizitzan izan duen eraginari balioa emateko, diskurtso antifeministen aurrean herritar informatu eta kritikoak izan gaitezten.
- Tokiko politika publikoetan genero ikuspegia zeharka txertatzea, berdintasunerako benetako aurrerapausoak bermatuz.
- Berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza indartzea, desberdintasunei eta indarkeriei aurre hartzeko funtsezko tresna gisa, batez ere gazteen artean, betiere teoria eta historia feministari balioa emanez.
- Mugimendu feministaren eta elkartegintzaren lana aitortzea eta babestea, kohesio sozialari, justiziarri eta demokraziari egindako ekarpen historikoa eta egungoa baloratuz. Ekintza horiek guztiek Nafarroa bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta demokratikoagoa eraikitzen lagunduko dute, konkistatutako eskubideen defentsarekin eta hedapenarekin konprometitua. Izan ere, gaur egun eskubideez eta askatasunez gozaten badugu, borroka kolektiboari esker da. Feminismoak ekarri gintuen honaino. Feminismorik gabe ez dago erabateko demokraziarik. Berari esker, gaur izan, egon, esan eta erabaki dezakegu.

## **BEDERATZIGARRENA.- BESTE BATZUK**

### - NPB hektareak

Barberena jaunak uste du, NPBrako hektareen banaketa dela eta, beste planteamendu mota bat egin behar dela. Aspaldi jarraitzen zaion ereduari buruzko azalpena eman da, eta bestelako formula bat aurkeztuko duela adierazi da.

### - Biosfera Erreserbako Partzuergoaren estatutuak.

Presidenteak azaldu du aldaketa bat egin behar dela Biosfera Erreserbako Partzuergoaren estatutuetan, Nafarroako Gobernuak proposatua, partzuergoaren ordezkariak jasotzeko eta egungo legeriara egokitzeko. Halaber, prozesu osoa arindu behar da, bi urteko epean idatzita egon behar duen ekintza-plana idazten hasi behar baita. Nafarroako Gobernuak dokumentu hori lantzen ari da.

### - Zeruko begiratokia mantentzeko proposamena.

Cederna-Garalurrek kontsulta bat bidali du Batzarre Nagusiak Abaurregainan instalatuko den zeruko begiratokia mantentzeko ardura hartuko duen ala ez galdetzeko. Begiratokiaren funtzionamendua arautuko duen baldintza pleguan ezarri behar da zein izanen den mantentze-lanen erakunde arduraduna (gainerako ibarretan Batzorde Nagusiak izanen dira). Lehen urtean, baina, enpresa instalatzaileak egingen du mahaiaren mantentze lana. Hala ere, noizean behin ikuskatu beharko litzateke, garbitu eta funtzionatzen duela ziurtatu.

Osoko bilkurak erabaki du Batzarre Nagusiak egingen duela mantentze-lan hori eta, horretarako, Abaurregainako Udalarekin hitz egingen dela.

### - GPS antenak

Barberena jaunak azaldu du 2025ean zenbait antena jarri zirela, lepokeen bidez azienda non dagoen jakiteko. Planteatu da Batzarre Nagusiak instalatzea ibarreko abeltzaintza-ustiategiek erosten dituzten gailu guztiei estaldura emateko beharrezko antenak. Une honetan zenbait sistema daude, baina bateraezinak dira. Arlokoekin hitz eginda, akordio batera iris daiteke, irits daiteke, proiektuak izan beharko lukeen dimentsioa, beharrezko ekipoak eta abar ikusteko, behar diren instalazioak finantzatzeko bide posibleak barne. Osoko Bilkurak erabaki du abeltzaintza batzordeak arlokoekin aztertzea gaia.

- AEIOZU

Batzarreburu jaunak jakinarazi du Aeiozu elkartearen harremanetan jarri dela berarekin, sareei, programei, dinamikei eta ikastaroei buruzko prestakuntza desberdinak egiteko aukera eskaintzeko, lau gela mugikor baitituzte. Aezkoan behar zehatzen bat ote dagoen aztertzea erabaki da.

- 4 Ibarrek elkartearen.

Une honetan Topogida bat egiteko proiektua kontratatatzeko prozedurari jarraitzen ari zaio. Hamabost mila euroko aurrekontua du, lau erakundearen artean banatzekoa. Gonbidapenak hainbat enpresatara bidaliko dira, eta hautaketa martxoaren 17an egitea aurreikusi da. Halaber, basoaren kudeaketari buruzko Eductourraren prestakuntza aurreratu da. Ziur aski maiatzean egingen da, eta basoak kudeatzen dituzten enpresek eta erakundeek parte hartzea aurreikusi da, eta abian dagoen egur-ustiategi bat bisitatuko da. Gidaren balorazio ekonomikoa egiteke dago. Lantzen ari diren beste gai bat da urrian Garazin edo Zuberokan egingen den klimari buruzko jardunaldia.

- Urrobi partzuergoa.

Merino batzarrekide jaunak azaldu du Erroibarko Udalarekin hitz egiten jarraitzen dela gaur egun dagoen partzuergoa figura hori mantentzeko buruz edo, aldiz, bi erakundearen arteko hitzarmen bidezko kudeaketa eredu batera aldatzeko buruz. Era berean, hitz egiten ari da industrialdea zabaltzeko buruz, Aurizberriko Kontzejuak azkenean planteamendu horren proposamena egiten badu. Horiez guztiez hitz egingen da deitzeke dagoen hurrengoa batzarrean.

- Gu Pirinioa

Presidente jaunak jakinarazi du gaur egun hirugarren pertsona bat sartu dela Gu Pirinioko taldean, eta beste bat falta dela, baina dagoeneko hautagaiak badituztela.

Era berean, gogorarazi du otsailaren 25ean Pirinioetako Mahaiaren bilera bat aurreikusita dagoela, martxoaren 11n udalei bide-orrria aurkeztuko zaiela eta martxoaren 17an Pirinioetako Mahaiaren Batzarra egingen dela Erron.

## **HAMARGARRENA.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko arratsaldeko ordu biak eta hogeita hamar minutuak zirela. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

